

Jainkoa ortzi goitik,  
beian gure lurra jori...

Euskal lur,  
euskal erri!

Jainkoak egiña zara zu,  
mendi ta ibar narotsu.

Lurrez ez zara zabala,  
baiña fedez bai garbaia.  
Osorik zaitugu lerden,  
egite garbitan guren.

Euskal erri,  
**lur** maite:

Jainko ta erri zait!

Zure sabel emokorrak  
beñola gatzatu nindun,  
eta miñak ikutua  
orain nabil zauridun.

Euskal lur,  
oillo-lur:  
nadin beti euskaldun!

### EZIN ULERTUA

I, gazte, zer uste dok? Ba-dok goi-txingarra,  
buru-barne dizdira, zeru izatezko indarra.

Baiña zer aiz, bestela? Artxo zapaldua?  
Txio emeko txepetx? Mendiko gandua?

Jakintsu aiz eure ustez, buru-tente, txotil;  
dana ulertu gurean, goi-amesez abi.

Or izadia... Zer al dakik guzti ortik?  
Errai ta koskol ba-yok Jainkoak ereiñik.

Ta ik buruaren barru danori sartu nai?  
Ez al yak geiegia, ire ames pentzai?

Tangea ta ur txanbilla, begira ontzi bi.  
Txanbilleko ur guztia, zer? tangán irauli?

Moduzko aizala be, eziña dok, guztiz:  
ire antze kemena yoak uts itzaliz.

Ez egik ulertu nai Jainkoaren ala;  
ekiñak bait diñostak eziña dokala.

Ostera: zer aiz, gazte? Zeru txingarra, bai.  
Besterik zer? Lillura, uskeri, gora-nai.

### AMAREUNA

Sapaian arilketan  
abillen amareun,  
esan eidak, bertantxe,  
norentzat dokan eun.

—Euliak opa ditut  
arrapatu bertan,  
gaurkoz asealdia  
palta ez dakidan.

—Ez naizu lots-arazo  
ariltze orrekin;  
lorak ditut azpian,  
oa egan urrin.

Ezeizu, ez, lorarik  
sast-egiñik izu.  
Oa, sare ori  
urriñago eundu.